

## KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

<b>Espediente zk.</b>	2020/KON_NE_G0007
<b>Kontratu mota</b>	Zerbitzuak
<b>Sail arduraduna</b>	Idazkaritza Saila

### 1. OBJEKTUA

Kontratu honen xedea da Bermeoko Udaleko Berdintasun Plana exekutatu eta garatzeko zerbitzua kontratatzea.

Prestazioaren ezaugarriak direla eta, kontratua ezin da loteetan banatu, lanaren kongruentzia eta koordinazioa bermatuta garatzeko ezinbestekoa delako enpresa bakarrak garatzea zerbitzua bere osotasunean. Halaber, helburua ezin da zatitu, berdintasun plangintzaren exekuzioarekin eta bere ekintzen antolaketarekin lotutako beharrian guztiak barne hartzen direlako kontratazio honetan.

### 2. SAILKAPEN KODEA

CPV: 98200000-5 Aukera berdintasunari buruzko aholkularitza zerbitzuak

### 3. ESLEITZEKO ETA TRAMITATZEKO PROZEDURA


Esleitzeko prozedura: Publizitate gabeko prozedura negoziatua  
Tramitazioa: Arrunta

Aukeratutako prozedura publizitate gabeko negoziatua izango da, SPKLren 167 eta 170 artikuluei jarraiki, araudi horren 168.a).1º artikuluetan zehaztutako kasu baten aurrean gaudelako. Izan ere, 2020ko abuztuaren 17ko 1928 zk. Alkatetza Dekretu bidez izapidetutako publizitate gabeko prozedura hutsik deklaratu zen. Horrez gain, aipatu beharra dago, aurretik prozedura irekia izapidetu zela, eta 2020ko martxoaren 25eko 826 zk. Alkatetza Dekretu bidez ere, hutsik deklaratu zela.

### 4. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna Europar Batasunaren oinarritzko balioa da, eta Europar Batasunaren Tratatuaren 2. eta 3. artikuluetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 8., 153. eta 157. artikuluetan eta Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 21. eta 23. artikuluetan jasotzen da (Estraburgo, 2007ko abenduaren 12a).

Gainera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko testu guztietan juridikoki onartutako printzipio unibertsala da; horien artean, Emakumearen Aurrakari Bereizkeria-mota guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa



nabarmetzen da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979ko abenduan onartua eta Espainiak 1983ko abenduan berretsi zuena.

Estatuaren esparruan, Konstituzioaren 14. artikulua berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidea aldarrikatzen du, eta 9.2 artikulua, berriz, norbanakoaren eta bera osatzen duten taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzeko botere publikoen betebeharra ezartzen du. Konstituzioak agindu horiek garatzeko, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa onetsi zen, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa. Lege honen oinarria hau da: legearen aurrean berdintasun formala erabat onartzea, araubidez hobetu beharrekoa, eta *“oraindik ere badauden sexuagatiko bereizkeria-adierazpen guztiei, zuzenekoei zein zeharkakoei, aurre egitea eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzea, hori lortzea eragozten duten gizarte-oztopo eta -estereotipoak alde batera utzita”*. Ildo horretatik, lege horren 21.2 artikulua dio: *“toki-erakundeek berdintasun-eskubidea integratuko dute beren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, gainerako herri-administrazioekin lankidetzan arituko dira”*.

Bestalde, autonomia erkidegoko arauen esparruan, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 9.2.d) artikulua, euskal herri-boterei agintzen die neurriak har ditzatela, gizabanakoaren eta bera osatzen duten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezela, oso antzera errepikatuz Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoa.

Arau horren ondorioz, otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu zen, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari buruzkoa. Lege horren 7. artikuluan, genero-berdintasunaren arloan toki-administrazioek dituzten eginkizunak zehazten dira. Besteak beste, egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortuko dira genero-ikuspegia administrazioan txertatzeko, edota ekintza positiboko neurriak gauzatzeko toki-eremuan.

Horrela, udal esparruari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.o) artikulua udalei esleitzen die hurrengo eskumena: *“gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak gauzatzea”*. Era berean, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.27 artikulua adierazten du udalek eskumenak izango dituztela *“genero-berdintasunerako eta ekitate sustatzeko politikak antolatze eta kudeatzeko”*.

Testuinguru horretan, tokiko korporazioak jabetu dira beren udalerrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteak duen garrantziaz, ez bakarrik legeak hala agintzen duelako, baizik eta gizarte-justiziaren kontua delako. Beren lanaren bidez, udalerriko emakumeen eta gizonen egoera, behar eta baldintzak kontuan hartuko dituen espazioa eraikitze beharrezkoak diren gizarte-aldaketak sustatu eta gidatu behar dituzte. Hau da, politika publiko eraginkorra egin behar dute gizon eta emakumeentzat modu berean, eta hori posible izango da baldin eta batzuen eta besteen egoera, beharrak eta zailtasunak benetan ezagutzen badira, hots, haien desberdintasunak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004E05700V9W7L6W414X7

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007  
Data: 15/09/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



ezagutzen badituzte; eta, azken batean, desberdintasun horiek zuzentzeko ekintzak arintzeko eta bermatzeko konpentsazio-neurriak hartzen badituzte. Izan ere, kontuan hartu behar da tokiko korporazioak direla herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak, eta berdintasunaren helbururako tokiko neurri eta estrategien sarea osatzen duen katearen lehen maila direla. Hala, Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunak dio tokiko eta eskualdeko agintariak direla *“desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetan berdintasuna duen gizartea sustatzeko esku-hartzerik egokienak”*.

Horiek horrela, 2008. urtean Bermeoko Udalak Emakumeen eta Gizonen egoera azaltzen zuen lehen diagnostikoa egin zuen; eta, horren ondorioz, berdintasun aukeren aldeko I. Udal Plana onartu zen 2010-2013 eperako, ardatz desberdinak landuz. 2014. urtean, planaren ebaluazioa egin zen, eta horren gauzapena % 50era heldu zela ondorioztatu zen. Beraz, epe laburrean bideragarriak izango ziren proposamen desberdinak finkatzeko helburuarekin 2016. urtean emakume elkarteekin eta udal langileekin ariketa desberdinak egin ziren.

Halaber, 2018. urtean Bermeoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana egiteko prozesua abian jarri zen. Hori oinarritzat hartuta, Bermeoko Udalak bigarren berdintasun plana exekutatu nahi du, udalerrian berdintasun-politikak garatzeko apustu sendoa egiteko duen jarreran. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da zerbitzua kontratatzea plana gauzatzeko eta bertatik eratorritako ekintzak garatzeko.

## 5. BALIABIDE GABEZIA

1978ko Konstituzioa onartu zenetik, pixkanaka-pixkanaka, administrazio publiko guztietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako politikak sartzen joan dira, Konstituzioko 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz; izan ere, artikulua horrek printzipio orokor gisa jotzen du botere publikoen jardueran.

Aurreko atalean aipatu den bezala, premisa hori garatzeko, udalei berdintasun alorrean eskumen batzuk eman zaizkie. Eskumen horiek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.o) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 17.1.27. artikuluan daude jasota, 4/2005 Legean emandako eginkizunez gain.

Orobat, 4/2005 Legeak 10. artikuluan hurrengo dio: *“Foru- eta toki-administrazioek, nork bere burua antolatzeko eskumenen esparruan, egiturak egokitu egin behar dituzte, eta, hala, horietako bakoitzean, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatu, programatu, aholkatu eta ebaluatzeaz arduratuko den erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egon behar da.”*

Organo horren eginkizunetako bat berdintasun planak prestatzea da, bai eta haien jarraipena eta exekuzioa ere. Prestazio horiek kontratu honen xedeari dagozkie. Hala ere, gaur egun Bermeoko Udalak ez du lan horiek egiteko behar den gaitasun teknikoa duen organo edo unitaterik, ezta pertsonalik ere. Izan ere, prestazio horiek emateko,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004E05700V9W7L6W414X7

### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007

Data: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



behar den laguntza teknikoa eman dezakeen prestakuntza akademiko nahikoa eta espezializatua duten langileak behar dira.

Gainera, aurrekontu arloan eta gastu publikoari eusteko esparruan indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, uste da administrazioak eginkizun hori betetzeko dituen giza baliabideak ezin direla handitu.

Alde horretatik, berdintasun arloan espezializatutako kanpoko enpresa bat kontratatuz, horretarako langile nahikoa eta egokiak dituena, zerbitzua modu eraginkor eta efizienteagoan eman ahal izango da, Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.h) artikuluan ezarritako printzipioekin bat etorritz.

Horregatik guztiagatik, prestazioak emateko behar diren giza baliabide nahikorik ez dagoenez, lanpostuen zerranda aurreikusitako langile-plantilla handitzea ez denez bideragarri ikusten, eta administrazio publiko guztiak arautzeko eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak kontuan hartuta, justifikatutzat jotzen da zerbitzua kanpoko enpresa espezializatu batekin kontratatzea.

## 6. EPEA

Kontratuaren hasierako iraupen-epea: urtebete

Kontratuaren iraupen-epea hasten den unea: kontratua formalizatzen denetik

Luzapenak: bai

Zenbat: Hiru luzapen, gehienez lau urtera arte

Kontratuaren luzapenak baldintzaturik egongo dira aurrekontu ekitaldi bakoitzean behar adina diru badago.

## 7. DATU EKONOMIKOAK

### 7.1 Kontratuaren balio zenbatetsia

KONTZEPTUA	BALIO ZENBATETSIA (BEZIK GABE)
LIZITAZIOAREN AURREKONTUA	24.790,00 €
AURREIKUSITAKO ALDAKETAK (20%)	0,00 €
LUZAPENAK	74.370,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>99.160,00 €</b>



## 7.2 Urtekoa

URTEKOA	URTEKO ZENBATEKOA (BEZA BARNE)
2020	4.999,33 €
2021	29.996,00 €
2022	29.996,00 €
2023	29.996,00 €
2024	24.996,60 €

## 7.3 Litzitaziorako oinarritzko aurrekontua

	ZENBATEKOA BEZ GABE	BEZA	GUZTIRA
<b>GUZTIRA</b>	24.790,00 €	5.205,90 €	29.996,00 €

### 7.3.1 Litzitaziorako oinarritzko aurrekontuaren desglosea

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
ZUZENEKO KOSTUAK	790,00 €
ZEHARKAKO KOSTUAK	5.706,00 €
LANGILERIA KOSTUAK	23.500,00 €
<b>ZENBATEKO OSOA</b>	<b>29.996,00 €</b>

### 7.3.2 Enplegatuen soldata-kostuak eta generoaren araberako bereizketa

Zerbitzuaren kostua kalkulatzeko, erreferentzia gisa hartu da Bizkaiko bulego sektorearen hitzarmen kolektiboa (hitzarmen-kodea: 48001755011981), 107. zk. BAO n argitaratua, 2011ko ekainaren 6an. Langileria kostuak 23.500,00 eurokoak dira.

Generoaren araberako bereizketa: enpresa bakoitzak genero bakoitzeko pertsona-kopurua eta kontuan hartutako lan-hitzarmena adierazi beharko du.

### 7.3.3 Merkatuko prezioak

Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua zehazteko, merkatuko prezioak hartu dira erreferentzia gisa, zerbitzu hori ematen duten inguruko enpresei egindako kontsulteren bidez, bai eta aurreko litzitaziotik ateratako datuetatik ere.

## 8. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Ez dagokio

## 9. PREZIO-BERRIKUSPENA

Ez dagokio



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40004E05700V9W7L6W414X7

#### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007  
Data: 15/09/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



## 10. BERMEAK

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen

Behin betikoa: Esleipenaren zenbatekoaren % 5

Osagarria: Ez da eskatzen

## 11. KAUDIMENA ETA SAILKAPENA

### 11.1 Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

Irizpidea: Negozioen urteko bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumenik handiena duen urteari dagokiona.

Gutxieneko baldintza: Bolumen handieneko urteko negozio bolumenaren zenbatekoa ez izatea kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi baino handiagoa.

Egiaztapena: Erantzukizuneko aitortpena aurkeztuko da, baldintza agirietan dagoen eranskin ereduaren arabera. Erantzukizuneko aitortpena honela beteko da:

- Onartutako eta Merkataritza Erregistroan edo enpresaburuak izena eman behar duen Erregistro Ofizialean gordetako urteko kontuetan ageri diren balioak jarri behar dira. Bermeoko Udalak dagokion erregistroan sartuz egingo ditu egiaztapenak.
- Baliozko arrazoi batengatik, enpresa lizitatzailerak ez badu urteko konturik onartu eta gordailuan utzitako azken 3 urteetatik gorako zenbatekorik (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko obligaziorik ez duelako edo enpresa sortu berria delako), adierazpenean arrazoia adierazi beharko du.
- Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoia adierazi duten enpresaburuek beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatu beharko dute, eta, horrez gain, erantzukizuneko aitortpenaz aparte, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenaren 200 eredua edo baliokidea aurkeztu beharko dituzte.

*(Oharra: Urteko negozio bolumena merkataritzako legerian ezarritako urteko kontuen erregelamenduzko ereduetaiko galdu-irabazien kontuan ageri den negozio zifraren zenbateko garbia da.)*

### 11.2 Kaudimen teknikoa eta profesionala

Irizpidea: Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanetan esperientzia izatea eta ikasketatituluak zein hizkuntza eskakizunak izatea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren  
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal  
dozu.  
Kodea:  
07E40004E05700V9W7L6W414X7

#### Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020  
10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007  
Data: 15/09/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**Gutxieneko baldintza:**

- Azken hiru urteetan gauzatze handiena izan duen urtean metatutako urteko zenbatekoa, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo gorakoa izatea.
- Enpresaren plantillan dauden langileen ikasketa-tituluak eta profesionalak: zerbitzua garatuko duten langileek, goi-mailako lizentziadunak edo graduatuak izango dira eta gidatzeko baimena eduki beharko dute. Gainera, emakume eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa eduki beharko dute, gutxienez 150 orduko eta organo ofizial batek ziurtatua.
- Hizkuntza eskakizunak: zerbitzua garatuko duten langileek, lana euskaraz modu egokian gauzatzeko maila nahikoa eduki beharko dutela bermatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-esparru Komunaren C1 maila edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute.

**Egiaztapena: Hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:**

- Baldintza agirien eranskin ereduaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, azken hiru urteetako gauzatze handieneko urteari dagokiona, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, jasotzen dituen. Zerbitzu edo lan horiek organo eskudunak luzatutako edo ikus-onetsitako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean horrek emandako ziurtagiriaren bidez. EZ da beharrezkoa izango zerrendan agertzen diren zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztea, Bermeoko Udala bada hartzailea.
- Ikasketa-tituluen ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak.
- Hizkuntza eskakizunen ziurtagiriak edo fotokopia konpultsatuak.

Hala ere, erregulazio harmonizatuaren pean ez dagoen kontratua denez, kontratista enpresa sortu berri bat bada, hau da, 5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen enpresa, haren kaudimen teknikoa egiaztatzeko SPKLren 89.1.h) artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

**11.2 Kaudimena ordezkia dezakeen enpresa-sailkapena**

Ez dagokio; izan ere, kontratuaren xedeari dagokion CPV kodea kontuan hartuta, ez dago APKLEOren II. Eranskinean arautzen diren indarreko sailkapenen barruan, abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan .

**12. BALIABIDE PERTSONAL EDO MATERIAL NAHIKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA**

Ez da eskatzen

**13. SUBROGAZIOA**

Ez dagokio



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40004E05700V9W7L6W414X7

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007  
Data: 15/09/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





#### 14. AZPIKONTRATAZIOA

Pleguetan xedatutakoak eta SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Nolanahi ere, eskaintzan lizitatuzaileek azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute, zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adieraziz.

#### 15. HOBEKUNTZAK

Ez dira onartzen

#### 16. ESKAINTZAK BALORATZEKO ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera aukeratutako esleipen irizpideen helburua da kontratuaren beharrei erantzuteko behar den kalitate/prezio onena lortzea.

##### 16.1 Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu arte

Erabilitako formulazioa linealtasun-premisa nagusiarekin aukeratu da, eskaintza onuragarrienen eta emandako puntu kopuru handienaren artean, eta alderantziz. Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa zehazteko, honela jokatuko da:

Beharpenik handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

$$P_i = 51 \times (B_i/B_m)$$

Beharpen handiena % 5 baino handiagoa ez bada, eskaintza bakoitzak bere baja-portzentajearekiko proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

$$P_i = 51 \times (B_i/5)$$

##### Aldagaien definizioa:

$P_i$  = "i" lizitatuzailearen puntuazioa

$B_m$  = Gehienezko baja

$B_i$  = "i" lizitatuzailearen baja

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira. Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

##### Eskaintzak anormaltzat baxutzat hartzeko irizpideak:

% 20ko beharpena kontratuaren lizitazio prezioaren gainean, BEZa sartu gabe.





## 16.2 Lan metodologiaren kalitatea: 27 puntu

Zerbitzua zelan garatuko den puntuatuko da. Horretarako, lehiatzaileek, berdintasun plana zelan garatuko duten deskribatu beharko dute, helburuak, zerbitzuaren ezaugarriak eta lan metodologia jasota. Burutu beharreko ekintzak zelan garatuko diren ere adierazi behar da.

Zerbitzua garatzeko proiektuak daukan kalitatea, koherentzia eta egokitasuna neurtuko dira atal honetan. Hurrengo eran egingo da:

MAILA OSO ALTUA	MAILA ALTUA	MAILA NAHIKOA	MAILA BAXUA
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara osorik eta espezifikoki moldatzen da (12 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara ia osorik eta espezifikotasun altuarekin moldatzen da, baina ez guztiz (8 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara erdizka eta espezifikotasun baxuarekin moldatzen da (4 puntu)	Ez da Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzara moldatzen, orokorra da eta espezifikotasun oso baxua edo hutsala da (0 puntu)
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal guztiak bere osotasunean eta ekintza guztiak aitatu eta garatzen dira (12 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintza gehienak aipatu eta garatzen dira (8 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintzaren erdiak aipatu eta garatzen dira (4 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintzako atal eta ekintzaren erdiak baino gutxiago aipatu eta garatzen dira (0 puntu)
Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak oso egokiak eta eraginkorrak dira (3 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak egokiak eta eraginkorrak dira (2 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak nahikoak dira (1 puntu)	Bermeoko Udaleko Berdintasun plangintza eta bere ekintzak garatzeko proposatutako neurriak ez dira nahikoak edo ez dira eraginkorrak (0 puntu)

## 16.2 Zerbitzua garatzeko eskaintako prestasuna: 12 puntu

Prestasun osoa eskaini ezker, ezelako ordu muga barik, 12 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, astelehenetik ostiralera eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik, 12 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, 4 egunetan astelehena eta ostiralera bitartean, eta asteburuan egun batean, ezelako ordu muga barik, 10 puntu emango dira.



Prestasun osoa eskaini ezker 5 egunetan astelehenetik ostiral, ezelako ordu muga barik, 8 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker 4 egunetan astelehena eta ostiral bitartean, eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik, 6 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker 3 egunetan astelehena eta ostirala bitartean, eta asteburuan egun baten, 4 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker 2 egunetan astelehena eta ostirala bitartean, eta asteburuan egun baten, ezelako ordu muga barik, 2 puntu emango dira.

Prestasun osoa eskaini ezker, egun batean astelehena eta ostiral bitartean, ezelako ordu muga barik, puntu 1 emango da.

### **16.3 Planaren betetze maila eta ekintzen lortzapen maila neurtzeko ebaluaketa sistema eta adierazleen egokitasuna: 10 puntu**

Ebaluaketa sistemaren koherentzia eta betetze maila eta ekintzen lortzapenak neurtzeko baliagarria izatea modu honetan baloratuko da: 10 puntu oso egokia bada, 5 puntu nahiko egokia bada, 2,5 puntu eskasa bada eta 0 puntu oso desegokia bada.

Adierazleen egokitasuna baloratzeko, kontutan edukiko da adierazleak zehatzak eta argiak direla, aditz batekin hasten direla, kopuru bat jasotzen dutela, epe bat daukatela eta erantzule bat ezartzen dutela. Adierazleek baldintza guzti horiek betetzen badute eta neurketa egiteko baliagarriak badira, 10 puntu emango dira. Baldintza guzti horietako erdiak betetzen badituzte –zehatzak eta argiak izatea, aditz batekin hastea, kopuru bat jasotzea, epe bat edukitzea eta erantzule bat ezartzea-, eta baliagarriak badira neurketa egiteko, 5 puntu emango dira. Baldintza horietako herenak betetzen badituzte eta baliagarriak badira neurketa egiteko, 2,5 puntu emango dira. Baldintza horietatik herena baino gutxiagok betetzen badituzte, edota ez badira baliagarriak neurketa egiteko, 0 puntu emango dira.

#### Irizpide bakoitzari esleitutako haztapenaren justifikazioa:

Prezioari % 51a eman zaio, udalaren egoera ekonomikoa kontuan hartuta zerbitzuak ahalik eta prezio merkeenean eskuratzeko garrantzi handia duelako, oreka ekonomikoa mantentze aldera. Horretarako erabiliko den formula “zuzeneko formula lineal/proporzional zuzendua” da.

Kontu Auzitegiek eta OCEXek, oro har, ontzat ematen dute “zuzeneko formula lineal/proporzional zuzendua” deritzona. Zalantzarik gabe, kontratazio-formula horrek honako baldintza hauek bete behar dituela ondorioztatu da: funtzio lineala izatea, “prezioa/baja” aldatzean proporzionaltasuna bermatzen duena “lortutako puntuazioaren” aldean, asetasun-atalaserik ez egotea, eskaintza aurkezte hutsagatik



puntuaziorik ez ematea eta eskaintzen *"batez bestekoari"* puntuazio handiagoa ez ematea.

Proposatutako formulak funtzio lineal-proporzional bat ematen du; ez da eskaintza baloratzen aurkezte hutsagatik, eta ez da asetasun-atalaserik aurreikusten, aipatutako erakundeek baztertu dituztenak baitira. % 20ko tartea zuzentzea proposatzen da, *"formula proporzional-lineal zuzena"* baino proporzionaltasun hobea lortzeko, batez ere, lizitatzailleek proposatutako bajak txikiak direnean. *"Formula proporzional-lineal zuzena"* aplikatuz gero, gerta daiteke prezioari emandako puntuazioa oso altua izatea, irizpide teknikoen eta prezio-irizpidearen arteko haztapena indargabetuz. Beste alde batetik, gerta daiteke, nahiz eta bi lizitatzailleek proposatutako baja-portzentajeetan alde handirik ez egon, bakoitzari esleitutako puntuen aldea nabarmena eta neurritz kanpoko izatea. Proposatutako zuzenketa-faktorearekin, bajen arteko desberdintasunak aldatzen dira, emandako puntuazioen arteko desberdintasunak etengabe eta modu kontrolatuan aldatzen direlako.

Lan metodologiaren kalitateari % 27ko puntuazioarekin baloratuko da, zerbitzuaren kalitatea bermatu eta kalitate-prezio hoberena lortzea neurtzen dituen gaiak puntuatzen direlako: plangintzara espezifikoki moldatzea, plangintza bere osotasunean eta bere ekintzak garatzea eta proposatutako neurrien egokitasun eta eraginkortasuna. Atal honen barruan neurtuko diren irizpideekin, kalitatearen maila neurtuko da, maila oso altua bada 27 puntuak lortzeko moduan, maila altuko bada, puntuaketa osoaren heren bi lortzeko moduan, eta maila nahikoduna bada, puntuaketa osoaren heren bat lortzeko moduan. Hau da, mailen arteko ezberdintasuna, 9 puntuko tramuan desberdinduko da. Hala ere, kontuan izanda proiektu batek maila bat eduki dezakeela gai batzuetan, eta beste maila bat besteetan, proiektuek eduki dezaketen maila desberdinak ponderatzeko asmoz, aipatutako 3 irizpideak desberdintzen dira –plangintzara espezifikoki moldatzea, plangintza bere osotasunean eta bere ekintzak garatzea eta proposatutako neurrien egokitasun eta eraginkortasuna-. Eta hori guztia, balorazio ahalik eta zorrotzeta eta justuena izan dadin.

Zerbitzua garatzeko eskainitako prestasunari % 12ko puntuazioa emango zaio, prezioari beherapen handirik ezin zaionez egin anormaltzat baxutzat eman barik, prezioaren barruan ahalik eta prestasun handiena izatea interesgarri uste delako, efizientzia ahalik eta handiena izan dadin. Irizpide honekin ere, preziorik onenean kalitate handiena eta gastu gehigarriarik ez edukitzea suposatzen duenez, udalaren oreka ekonomikoa mantentzearen aldekoa da. Are gehiago, prestasunak suposatzen duen lan zama eta kostua jakinda. Irizpide honen balorazioa 7 tramutan banatu da, prestasuna zenbat egunetan eskaintzen den kontuan izanda. Hori horrela, prestasun osoari ematen zaizkio puntu guztiak eta, prestasuna hasteko egunetan murriztu ahala, 2 puntuka jaisten da, azken tramura arte, puntu batekin puntuatuko da, gutxieneko prestasun bat edukitzea puntuatzeagatik. Aipatutako tramuetan, puntu gehiago ematen dira egun horietako bat asteburuan bada, egun kopuru berdina aste barrukoak badira alderatuta. Eta hori, egin beharreko hainbat ekimen asteburutan izaten direlako, eta, ondorioz, garrantzitsuagoa



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40004E05700V9W7L6W414X7

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007

Data: 15/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



uste delako prestasundun egunetako bat asteburuan izatea, egun kopurua berdina izanda ere.

Edonola ere, langileen lan baldintzen duintasuna bermatu eta legez ezarritako atsedendialdiak bete daitezzen, asteburuko egun bat puntuatzea uste da egoki, biak puntuatu beharrean. Eta hori guztia, horrela baloratu da prestasunak zerbitzuaren efizientzia izan daitekeen eraginari eta enpresari suposatzen duen zamari puntuaketa ahalik eta bidezkoena emateko.

Azkenik, planaren betetze maila eta ekintzen lortzapenen maila neurtzeko % 10eko puntuazioa emango zaio. 10 puntu emango dira oso egokia bada; erdia, egokia bada, laurdena eskasa bada eta 0 oso desegokia bada. Beraz, egokitasuna mailaz jaisterakoan, puntuazioa erdira jaisten doa eta, egokitasun maila neurtzeko honako irizpide hauek edukiko dira kontuan: adierazleak zehatzak eta argiak izatea, aditz batekin hastea, kopuru bat jasotzea, epe bat jasotzea eta erantzule bat edukitzea, horiek direlako adierazle bat baliagarri izateko oinarrizko ukan beharrak. Horrez gain, neurketa egiteko baliagarriak izate kontuan izango da. Hori horrela, adierazle guztiek baldintza guzti horiek betetzen badituzte, 10 puntu jasoko dira. Adierazleek baldintza guzti horietako erdiak betetzen badituzte eta neurketa egiteko baliagarriak badira, erdiarekin puntuatuko da, hau da, 5 puntuarekin. Adierazleek baldintzen herena betetzen badute eta neurketa egiteko baliagarriak badira, 2,5 punturekin baloratuko dira. Hortik behera edota neurketa egiteko baliagarriak ez badira, 0 puntu emango dira.

## 17. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

### 17.1 Klausula sozialak eta/edo enpleguari buruzkoak

Kontratazio berrien % 10, gutxienez, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat izango dira, besteak beste, honako profil hauetako batzuk:

- % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak
- 45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezia daudenak (12 hilabetetik gorakoak)

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziaren justifikazioa kontratuaren xedearekin lotuta dago, eta ez da zuzenean edo zeharka diskriminatzailea. Halaber, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarria da.

Baldintza berezi hori ezarrita, Bermeoko Udalak enpresa-sare iraunkorra sustatu eta sendotu nahi du, gizartearekiko konpromiso sendoarekin, lana lortzeko zailtasun gehien dituzten pertsonak laneratzeko. Horrela, desberdintasunen aurka borrokatu eta egoera eta oztopo jakin batzuk zuzendu nahi dira, herritarrek bizimodu duina garatzeko behar dituzten aukerak izan ditzaten.



Pertsona horiek kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren gaitasun profesional eta pertsonalak izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzen duen plantillan sartu beharko dira, plantillako gainerako langileek dituzten lan baldintza beretan eta sektoreko hitzarmenaren arabera.

Horretarako, lan merkatuan sartzeko zailtasun partikularrak dituzten pertsonen kontratazioa egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Kontratatutako langileen izenen zerrenda, Gizarte Segurantzako altaren eta lan-kontratuaren kopia, eta TC1 eta TC2en kopia.
  - b) Kontratatutako pertsona-kopurua, horien profila eta kontratazioaren ezaugarriak egiaztatzen dituen ziurtagiria (lanbide-kategoria, kontratuaren iraupena eta urteko lanaldia). Beharrezkoa izanez gero, egiaztapen hau eskatu ahalko da:
- **% 33ko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak:**
    - % 33ko edo hortik gorako ezgaitasun mailaren ziurtagiriaren kopia, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren edo haren ordezkotza arauaren arabera.
    - Ezintasun iraunkorreko pentsioa, guztizko, erabateko edo baliaezintasun handiko graduan, edo zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik erretiro-pentsioa onartzeko administrazio-ebazpenaren kopia.

- **Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak:**

Genero-indarkeriaren aurkako prebentzio eta babes integralerako neurriei buruzko azaroaren 26ko 13/2007 Legearen 30. artikuluan edo haren ordezkotza arauaren ezarritakoaren arabera egiaztatzen. Artikulu horren arabera, egoera hori frogatzeko bidea, ebazpen judizial baten ondorioz, funtsean, babes-agindua, kautelazko neurriak edo genero-indarkeriagatiko kondena-epaia egiaztatzeko agiria izango da, ezartzen diren neurriak indarrean daudenean.

- **45 urtetik gorako pertsonak, iraupen luzeko langabezia daudenak (12 hilabete baino gehiago):**

- Indarrean dagoen NANaren kopia.
- Langabezia-egoera egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, dagokion enplegu-bulegoak luzatua.

## **17.2 Datu pertsonalen babeseokak**

Kontratu honen kasuan, enpresa kontratistak prestazioa aurrera eramateko hainbat datu pertsonaletara sarbidea izango du, kontuan hartuta zein den kontratuaren objektua. Hori dela eta, esleipendunak isilpeko izaera errespetatu beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren gainean, agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio edo, bere izaeragatik, isilpekotzat jo behar bada. Ezin izango da kopiatu edo



erabili kontratuaren exekuzioari ez dagozkion xedeetarako, ez eta beste batzuei laga ere, ezta kontserbatzeko ere. Betebehar hori mugagabea izanen da.

Enpresa esleipendunak eta bere langileek sekretu profesionala gorde beharko dute kontratua amaitu ondoren ere, kontratua dela-eta jakin dituzten datu pertsonalei dagokienez.

Era berean, erakundeak datuak kontratistari lagatzen dizkionean, kontratistak nahitaez bete beharko ditu datuak babesteari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa, eta betebehar hori funtsezko kontratu izaera du, SPKLren 211. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran xedatutakoaren arabera.

Bermeon, sinadura elektronikoko datan.

Idazkaritzako AOT

Nerea López Angulo



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40004E05700V9W7L6W414X7

**Sinadurea eta data**

NEREA LOPEZ ANGULO - 17/09/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/09/2020 10:32:29

EXPEDIENTE ::  
2020KON\_NE\_G0007  
Data: 15/09/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

